

LABORAL KUTXAk ez badu C atalean aipatzen diren jaulkitzaileei kontu berriaren datuen berri emateko behar den informazioa, informazio hori bezeroari eskatuko dio.

Bezeroak bere kontuko informazioa jaulkitzaileei ematea erabakitzen duenean, LABORAL KUTXAk bezeroari kontu berriaren datuak jasotzen dituzten gutun-ereduak emango dizkio, baita baimenean zehazten den lekualdaketa gauzatzeko data ere.

Eragiketa honen ondorioetarako, lekualdaketa honako alderdi hauen arabera egiten dela dakigula deklaritzen dut/deklaritzen dugu:

- Hornitzaile igoerleak gehienez bost egun balioduneko epea izango du hornitzaile hartzaileari kontu zaharrari lotutako ordainketa-operatiboari buruzko informazio eskuragarriaren zerrenda bidaltzeko.
- Hornitzaile igoerleak transferentzia-agindu iraunkorrek ezereztuko ditu, eta helbideratutako aldizkako transferentziak eta zordunketak onartzeari utziko dio, bezeroak egindako eskaeraren arabera, lekualdaketa gauzatzeko data gisa adierazitako datatik aurrera.
- Kontu zaharrea zordundu gabe dauden txeeen, txartelen eta beste obligazio galdagarri batzuen ordainketen zenbateko osoari erantzuteko adinako funts-hornidura egin beharra, bai eta lekualdaketa gauzatzen den data arte gerta litezkeen helbideratzeak ere.
- Ondoriozko saldoa transferitzeko eta, hala badagokio, kontua ezereztuko jarraibideak emateko, ezinbestekoa izango da kontuan zordundu beharreko inolako eragozpenik edo betebeharririk ez egotea. Eragozpenik izanez gero, hornitzaile igoerlea zuzenean jarri beharko litzateke harremanetan bezeroarekin, konpontzeko.
- Bezeroak nahitaez itzuli behar dizkio hornitzaile igoerleari erabili gabeko txee guztiak, libretak (ezeztatzeko) eta banku-txartelak.
- Eskaera horrekin lotutako edozein eztabaidarako, bezeroak Bezeroaren Arreta Zerbitzura jo ahal izango du, eta, besterik ezean, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura.

Adeitasunez:

TITULARRAK (Kontuan dauden titular guztien baimena behar da)		
Izen-abizenak	IFZ	Sinadura

TUTOREAK/ORDEZKARIAK

Izen-abizenak	IFZ	Sinadura

Baimenaren sinaduraren data: _____